



Verter enpresak segurtasun-biltegia handitzeko lanak adjudikatu ditu. Hondakinak kendu ahal izango dira horri esker, Joaquín Beltrán bilatzeko lanekin jarraitzeko

Zaldibarren, 2020ko abuztuaren 27an.- Zabortegiko hondakinak orain jasotzen dituen segurtasun-biltegia handitzeko lanak adjudikatu ditu Verter Recycling enpresak, Joaquín Beltránen gorpua bilatzeko lanekin jarraitu ahal izateko.

Hondakinak orain eramaten ari diren biltegia betetzear dago, eta toki gehiago behar du, Joaquín bilatzeko lanekin jarraitzea bermatzeko.

Lan horiek 3 milioi euro inguruko kostua izango dute, eta datozen egunetan hasiko dituzte.

Era horretan, Verter Recycling-ek erabateko konpromisoa agertzen du une honetan dagoen helburu nagusiarekin, Joaquín Beltránen hilotza berreskuratzearekin, alegia. Aukera ere emango du zabortegia behera etortzeak eragindako kalteak konpontzeko eta lurra egonkortzeko lanetan aurrera egiteko.

Verter Recycling enpresaren *online* jakinarazpenak: www.verter.eus

Informazioa: Arturo Zubiaga

Tel.: 94 415 86 42